

An abstract painting with thick, textured brushstrokes in various colors including yellow, blue, red, orange, and green. The text is overlaid on this background.

z e n b a i t

k o l o r e

Honako hau bigarren
fitxa duzu fitxa
koloreei buruz.

Irudiaren gainean klik eginez
gero, lehenengo fitxa kontsultatu
dezakezu.

EHULKUren aholkuak: *Koloreak euskaraz (1)* [2018-07-12]

Bi fitxetan jorraturiko
egituren aurkibide modukoa
duzu hurrengo orrian:

Koloreak euskaraz (2)



Koloreak euskaraz (1)



Koloreak euskaraz (1)

1. Kolore nagusiak
2. *-ail, -antz, -asta, -ats, -kara, -xka* eta *-zta* atzizkiak
3. Bitarteko koloreak: 'kolore-hitza + kolore-hitza
4. 'Kolore-hitz+ adjektibo' moduko sintagmak

Koloreak euskaraz (2)

5. 'Izena + KOLORE(KO)' egitura
6. 'Izen arrunta + kolore-hitza' elkartea
7. 'Izen berezia + kolore-hitza' elkartea

5. 'Izena + KOLORE(KO)' egitura

Gauzen izenez¹ baliatzen gara, sarri askotan, koloreak eta kolore-ñabardurak adierazteko.

Hitz-elkarteak (izena + izena) sortzen dira halakoetan. Bi modu ditugu halako kolore eta ñabardurok adierazteko:

❖ **Ardo-koloreko itsasoa**

❖ **Itsaso ardo-kolorea**



¹ Berbarako, lore- eta landare-izenak, fruitu- eta jaki-izenak, mineral-izenak, eta abar: *adreilu, argizari, arrosa, artile, azenario, bioleta, berun, buztin, errubi, esmeralda, ezti, fuksia, gari, gaztaina, goroldio, granate, hauts, herdoil, hezur, hiazinto, hondar, hur-azal, iratze, izpiliku, izokin, kaki, kalabaza, kanela, kobalto, krema, lasto, lima, limoi, lila, lur, marrubi, masusta, mugurdi, odol, ogi-bihi, oliba, olio, perla, sagardo, sepia, su, sugar, tabako, teila, turkesa, txilar, txokolate, urre, uso, zeru, ziape, zilar...*

'KOLOREKO' izenlagunaren agerraldi bila ibilita, *Euskaltzaindiaren hiztegian* eta «Ereduzko Prosa Gaur» (EPG) corpusean aurkituriko izenetako batzuk.

Hona beste zenbait adibide¹:

- **Arrosa-koloreko irudi argia**
- **Zeta arrosa-kolorea**

- **Tabako-koloreko gutunazala**
- **Aurpegi tabako-kolorea**

- **Gaztaina-koloreko ilea**
- **Ile gaztaina-kolorea**



¹ Marra erabiltzea aukerakoa da adibideotan. Dena dela, marra erabiltzea gomendatzen dugu, lagungarria eta desanbiguatzailea baita. Bestalde, erabiliagoa da adibideotako lehen egitura .

Bestalde, koloreak adierazteko lexikalizatuak ditugu, egungo euskaran, zenbait izen arrunt¹. Adibidez:

- Azal fin **arrosa**
- Eguzki **laranja**
- Artilezko txano **fuksia**
- Zeru **turkesa**
- Kapela **bioleta**
- ...

Arrosa
RGB 247,
191, 190



Laranja
RGB 239,
127, 26



Fuksia
RGB 255, 0,
255



Bioleta
RGB 120,
40, 140



¹ Ikus hirugarren diapositibako oin-oharreko izen-zerrenda. Honako hauek, behintzat, lexikalizatuta daude: *arrosa*, *bioleta*, *eskarlata*, *fuksia*, *granate*, *laranja*, *lila*, *kaki* eta *turkesa*.

Gainerakoak ez; oraingoz, bederen:

???zeru beruna

???masail adreilua

???...

Nolanahi ere den, adjektiboak erantsiz areago ñabartu daitezke nolabaiteko kolorea adierazten duten izenak.

-EN atzizkia hartzen du adjektiboak halakoetan.

Esaterako:

○ Ke-kolore › **Ke hezearen kolore**

❖ Urre(-)kolore

• **Urre zaharraren koloreko iragan bat.**

Anjel Lertxundi, *Konpainia noblean*, Alberdania, 2004.

❖ Hauts(-)kolore


• **Argiak suaren ondoko hauts errearen kolorea hartu zuen.**

Anjel Lertxundi, *Konpainia noblean*, Alberdania, 2004.

6. 'Izen arrunta + kolore-hitza' elkarteak

Izen arrunt batez ñabartzen dira sarritan kolorea adierazten duten hitzak.

- *Nola eman behar dira, ordea, halakoak euskaraz?*
- ✓ Marratxoa erabiltzea mesedegarria da halakoetan, anbiguetateak saihesteko (**igel berdea** ≠ **igel-berdea**)
 - Absentaren **igel-berdeak**
 - Itsaso **muki-berdea**
 - Putzu **altzairu-urdinak**



Adibideok hemendik hartuak:

- Joyce, James (2015): *Ulises*. IgeLa. Euskaratzailea: Xabier Olarra
- John Dos Passos (1999). *Manhattan Transfer*. Euskaratzaileak: Marcelo eta Iñaxio Lopez de Arana

Hona beste zenbait adibide¹:


- **Soineko goroldio-berdea.**
- **Tinta esmeralda-berdea.**
- **Begi zafiro-urdinak.**
- (...) **pinu-berde** koloreko elastiko fina.
- **Lima-berde** koloreko autoa.
- Oihalezko jaka **belar-berdea.**
- Kolore **zeru-urdina** edo **sagar-berdea.**
- Gorbata **oliba-berde bat.**
- Errepideko **putzu altzairu-urdinak.**
- Kotoizko txabusina **zeru-urdin bat.**
- ...

¹ «Ereduzko Prosa Gaur» (EPG) corpusetik hartuak eta moldatuak.

7. 'Izen berezia + kolore-hitza' elkartea.

Halaber, izen berezi batez ñabartu daitezke kolorea adierazten duten hitzak.

- *Nola eman behar ditugu, ordea, halakoak euskaraz?*
- ✓ Bada **zeru-urdin** eta antzekoak bezala. Izan ere, beti da lagungarri marratxoa (**zeru urdin** ≠ **zeru-urdin**).
- Tokiei loturiko koloreak (badira halako ugari).



- **Pertsona-izenei loturiko koloreak.**

Valentino-gorria

RGB 252, 34, 34



Alizia-urdina

RGB 145, 163, 176



- **Marka-izenei loturikoak.**

Tiffany-urdina

RGB 10, 186, 181




Ferrari-gorria

RGB 204, 0, 0



Bukatzeko, gogoraz dezagun *kolore gorria, kolore berdea* eta halako egiturak direla erabili beharrekoak, eta ez *gorri kolorea, berde kolorea* moduko esapideak. Halaxe adierazita dago lehenengo fitxan:


EHULKUren aholkuak
Euskara Zerbitzua


UPV EHU Koloreak euskaraz (1)

Adjektibo modura erabiltzen dira kolore-hitzok, eskuarki. Hartara, **izenaren eskuinean**:

- Koaderno **gorria**
- Axuri **beltza**
- Zaldi **zuria**

Kolore hitza sartuz gero, berdin:

- Kolore **gorriko** koaderno
- Kolore **beltzeko** axuria
- Kolore **zuriko** zaldia



*Gorri koloreko koaderno
 *Beltz koloreko axuria
 *Zuri koloreko zaldia

3

Izan ere, fitxa honetan hizpide izan ditugu 'X+kolore' egitura duten zenbait esamolde (*ardo-kolore, ke-kolore...*). Baina, ikusi dugunez, beste molde batekoak dira.

Gehiago jakiteko:



Perurena, Patziku (1992). *Koloreak euskal usarioan*. Donostia: Erein.

Petirena, Patxi (2008/11/10): "[Koloreak](#)". In *2tzul. Itzultzaileen Irizpen Biltegia*, EIZIE



Preciado, Txema (2009): [Euskarak erakutsi koloreak ikusten](#). Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.

Kolore-kodeak kontsultatzeko:

Gallagher, Martin (d.g.). [Encyclopedia](#). *Web Safe HTML Color Codes Reference Chart*.